ERRENTERIA
UDALA
Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Errenteriako Udala
Zbk./ Nº 2022-518
Data / Fecha 2022/02/08 08:57
Irteera / Salida

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2022IPOL0002
**Gaia/**Asunto**:** Koordinazio Gune Orokorra (KGO): izen aldaketa (lehen Zuzendaritza taldea) eta beste alderdi batzuk / Ámbito de Coordinación General: modificación de denominación (antes grupo de dirección) y otros aspectos
**Eskatzailea**/Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** ERRENTERIA **Dekretu zk.**/Nº Decreto: 275

**JAKINARAZPENA**

**Jakinarazten dizut, Alkatea**k **2022ko otsailaren 07a datan, ondorengo dekretua eman duela:**

**AURREKARIAK**

Aurreko agintaldian, nagusiki 2016 eta 2017. urteetan gure erakundearen antolamenduaren eta funtzionamenduaren inguruan hausnartu zen eta ateratako ondorioa izan zen erakunde eraginkor eta efizienteagoa izango bagara kudeatzeko modua aldatu behar genuela eta Udalaren erakunde-antolaketa eraberritu behar genuela zeharkakotasuna; denboraren eta baliabideen arrazionalizazioa; gardentasuna; herritarren partaidetza eta herritarrek duten herriko politikaren irudia hobetzeko.

Udalaren osaera organikoa berritu behar genuen, antolamendua sinplifikatzeko eta sail eta departamentuen arteko koordinazioa hobetzeko eta zentzu horretan azken urteetan akordio desberdinak hartu dira.

Udal antolamendu berrirantz abiatzeko lehen urratsa alkatetzako 1116 dekretu bidez eman zen, 2016ko azaroaren 14an **Zuzendaritza taldea** sortu zen (2016ko azaroaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) ordezkari politikoek eta teknikariek osatutako zuzendaritza organo bat. Organo horren zereginak dira koordinazio-lanak egitea eta sail, departamentu eta teknikarien arteko elkarlana

**NOTIFICACIÓN**

**Pongo en su conocimiento que la Alcaldesa con fecha 07 de febrero de 2022 ha dictado el siguiente decreto:**

**ANTECEDENTES**

Considerando que dentro del proceso de reflexión llevado a cabo el pasado mandato, fundamentalmente a lo largo de 2016 y 2017 sobre la organización y funcionamiento de nuestra institución, se llegó a la conclusión de que resultaba necesaria una transformación del modo de gestión municipal y una reforma de la organización institucional del Ayuntamiento para convertirnos en una organización más eficaz y eficiente que respondiese también a otros principios como la transversalidad; racionalización del tiempo y los recursos; transparencia; participación ciudadana y mejora de la imagen política local ante la ciudadanía.

Considerando la necesidad de realizar una renovación de la composición orgánica municipal que tiene como objetivos la simplificación organizativa y la mejora de la coordinación entre las diversas áreas y departamentos en los últimos años se han adoptado diferentes acuerdos en ese sentido.

Como primer paso de la nueva configuración organizativa municipal por medio del decreto de alcaldía 1116 de 14 de noviembre de 2016 (publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 28 de noviembre de 2016) se creó **Zuzendaritza taldea**, órgano colectivo de dirección, de composición mixta, política y técnica, con labores de coordinación y engranaje entre áreas, departamentos y personal técnico,

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

sustatzea, gai eta kontu zehatzagoak aztertzeko beste funtzio espezifikoez gain. Erakunde mailan ere hiru arlo handi eratu ziren: **Antolaketa**, **Lurraldea** eta **Herritarrak**, Udaleko sail eta departamentuak **koordinaziorako eta plangintzarako hiru arlo** handitan biltzeko, aldi berean eremu bakoitzeko arduradun politikoa izendatu zen eta hiru arlo hauekin bat zetozen batzorde informatibo iraunkorren kopurua hirura muriztu zen.

además de otras funciones más específicas de análisis de temas y asuntos determinados. También se configuraron tres grandes ámbitos a nivel institucional: **Organización**, **Territorio** y **Ciudadanía**, agrupando en **tres** grandes **ámbitos de coordinación y planificación** las diferentes áreas y departamentos municipales, a la vez que se nombró una persona responsable política en cada uno de los tres ámbitos y se simplificó el número de comisiones informativas de carácter permanente pasando a crear tres concidentes con los propios ámbitos.

Alkateak zinegotziei eskuordetutako eskumenez, sail eta departamentuei esleitutako gaitasunez eta indarreko organigramaz gain, aurreko agintaldian abian jarri zen erakunde-antolamendu berri horrek eskatu zuen eta eskatzen du agintaldi honetarako ere zuzendaritza-organo kolektibo hau: Zuzendaritza taldea eta, aldi berean, hiru arloetan (Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak) koordinazioko eta plangintzako taldeak egotea, sail eta departamentu bakoitzeko arduradun tekniko eta politikoekin eta, era berean, departamentu bakoitzeko koordinazioko eta plangintzako azpitaldeak.

Al margen de las delegaciones efectuadas por la Alcaldía en las y los concejales respectivos, las competencias atribuidas a las diferentes áreas y departamentos municipales y el organigrama municipal vigente, esta nueva organización institucional que se puso en marcha durante el pasado mandato requirió entonces y también en el presente mandato la existencia de este órgano colectivo de dirección, Zuzendaritza taldea y, a su vez, de equipos de coordinación y planificación de los tres ámbitos (Organización, Territorio y Ciudadanía) integrados por las y los responsables técnicos y políticos de cada área/departamento y, al mismo tiempo, subequipos de coordinación y planificación de cada departamento.

Udalaren antolamendu honekin lortu nahi diren koordinazio, plangintza, talde-lan eta elkarlanera iristeko, arlo bakoitzeko koordinazio- eta plangintza-talde bakoitzak bere arduradun politikoa dauka, arduratzen dena politikoki koordinatzeaz koordinazio- eta plangintza-taldea, horrela arloko talde horretan eta aldi berean ere arloko batzordean sail/departamentu guztien arteko zeharkakotasunean eta arlo horren inguruko planifikazioan laguntzeko. Aldi berean dagokion arduradun teknikoek ere arduradun politikoarekin batera beren eremuko bileretan eta Zuzendaritza taldekoetan parte hartzen dute informazioa helarazteko batetik bestera.

Para lograr la coordinación, planificación, trabajo en equipo y corresponsabilidad deseada en este engranaje municipal cada equipo de coordinación y planificación de cada ámbito cuenta con su responsable político/a, que se encarga de coordinar políticamente el equipo de coordinación y planificación favoreciendo la transversalidad entre todas las áreas/departamentos que integran el correspondiente equipo de coordinación y planificación del ámbito y también con las correspondientes personas responsables técnicas que al igual que la persona responsable política participan tanto en las reuniones de su ámbito como en las de Zuzendaritza taldea para realizar de esta manera el trasvase de información.

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

## ORAINGO EGOERA ETA BEHARRAK

Agintaldi honen hasieran, behin helburu eta proiektuak finkatu ondoren eta etengabeko hobekuntzaren printzipioari jarraituz indarrean zegoen egiturarekin lotutako alderdi batzuen inguruan hausnartzeko beharra ikusi zen, nagusiki Zuzendaritza taldearen izena, osaera, funtzioak eta lan-tresnak eta baita hiru eremuetakoak ere.
Lanketa honi ekinda osasun pandemia iritsi zen eta beraz aldi baterako alde batera utzi zen aipatutako hausnarketa, baina sortua zegoen egitura baliatu zen behar berrietara egokitzeko eta horrekin bat eginez departamentu desberdinetako kide berriak gehitu zitzaizkion Zuzendaritza taldeari. Aldi berean planifikazioa eta koordinazioa areagotu ziren gure erakundea pandemia osoan zehar hain aldakorra izaten ari den araudira egokitzeko eta Covid-19ak sortutako behar berri eta hain ezohikoak udalaren ohiko jarduera eta 2019-2023 Agintalde planeko ekintza eta jarduerekin bateragarri egin ahal izateko.

2021eko bukaera aldera aipatutako hausnarketari ekin zaio berriro eta ondorengo ondorioak atera dira 2022ko ekitaldi hasieran sistematizatu eta abian jartzeko asmoz:

- udal egituran orain arte eratutako egiturekin jarraituko dugu, baina izen aldaketa bat burutuz: **Koordinazio Gune Orokorra** (**KGO**, *Zuzendaritza taldea* ordez) eta hiru arloak (**Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak**)

Izen aldaketa honen arrazoia ondorengoa da. Koordinazio Gune Orokorra hiru arlo handitan bildutako udal sail/departamentuen inguruan eratutako koordinazio- eta plangintza-taldeetatik elikatzen da. Aldi berean, Koordinazio Gune Orokorra taldearen funtsezko funtzioetariko bat da arlo

## SITUACIÓN Y NECESIDADES ACTUALES

Al comienzo del presente mandato, una vez fijados los objetivos y proyectos para el mismo y siguiendo con el principio de mejora continua, se vio la necesidad de reflexionar sobre ciertos aspectos relacionados con la estructura vigente, fundamentalmente la denominación, composición, funciones e instrumentos de trabajo de Zuzendaritza taldea y también de los tres ámbitos.
Habiendo comenzado con dicha tarea sobrevino la pandemia sanitaria, por lo que se dejó de lado con carácter temporal dicha reflexión, pero se aprovechó la estructura existente para adaptarla a las nuevas necesidades y en coherencia con ello se incorporaron nuevos miembros de diferentes departamentos a Zuzendaritza taldea, a la vez que se fomentó, con mayor énfasis si cabe, la planificación y la coordinación para adaptar nuestra organización a la legislación tan cambiante a lo largo de toda la pandemia y poder compatibilizar la situación y nuevas necesidades tan extraordinarias generadas por el Covid-19 con la actividad ordinaria del ayuntamiento y las propias actuaciones y proyectos recogidos en el Plan de Mandato 2019-2023.

Hacia finales de 2021 se ha retomado nuevamente dicha reflexión y se han extraido las siguientes conclusiones con el fin de sistematizarlas y ponerlas en práctica a comienzos del nuevo ejercicio 2022:

- la estructura municipal continuará con la estructura creada hasta la fecha, pero con modificación de su denominación: **Ámbito de Coordinación General** (en vez de *grupo de dirección*) y tres ámbitos (**Organización, Territorio y Ciudadanía**)

La razón del cambio de denominación es la siguiente. El Ámbito de Coordinación General se nutre de los tres grandes equipos de coordinación y planificación constituidos en torno a las diferentes áreas/departamentos municipales aglutinadas todas ellas en los tres ámbitos. Al mismo tiempo, una de las

bakoitzeko (Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak) koordinazio- eta plangintza-taldeak koordinatzea. Koordinazioa bultzatzeaz ari gara, parte hartzen duten lerro guztiek estrategian lerrokatzeaz. Ez da erabaki gune bat. Horregatik zuzendaritza ikuspegia baina egokiagoa ikusi da izenean bertan koordinazio ikuspegia txertatzea.

funciones fundamentales del Ámbito de Coordinación General consiste en coordinar los equipos de coordinación y planificación de cada ámbito (Organización, Territorio y Ciudadanía), se trata mas de impulsar la coordinación, un alineamiento en estrategia de todas las líneas participantes. No se trata de un ámbito de decisión. Por todo ello se ha considerado más oportuno incluir en la propia denominación del grupo la visión de coordinación en vez de la visión de dirección.

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren osaera aldatzea irizpide batzuetara egokituz kideen artean profil desberdinak gehituz eta kasu batzuetan errotazio sistema bultzatuz gure egituraren barruan departamentu guztien gune bezala barneratu dezagun modu proaktiboan partehartuz.

- Modificar la composición del **Ámbito de Coordinación General** ajustándolo a una serie de criterios que nos llevan a incluir diferentes perfiles entre sus miembros e impulsar un sistema de rotación en algunos casos para que interioricemos este espacio dentro de nuestra estructura como un espacio de todos los departamentos fomentando la participación proactiva.

Hiru eremuetako ordezkari politiko zein teknikoek osatuko dute eta transbertsalak ulertzen diren departamentuetako ordezkari politiko eta teknikoek ere, guztira 16 kidez osatuko da. 5 ordezkari politiko eta 11 ordezkari tekniko ondorengo moduan banatuak:

Estará conformado por representación política y técnica de los tres ámbitos y también de los departamentos transversales, 16 miembros en total, 5 representantes políticos y 11 técnicos/as distribuidos del siguiente modo:

| **Eremuetako ordezkaritza kopurua**<br>Número de representantes de ámbitos | **Osaera politikoa**<br>Composición política | **Osaera teknikoa**<br>Composición técnica |
|---|---|---|
| (5) **Antolaketa** / Organización | **(1) kide finkoa /** (1) miembro fijo<br><br>**- Antolaketa eremuko arduradun politikoa eta antolaketa batzordeko lehendakaria** / Responsable política del ámbito de organización y | **(4) kide finkoak /** (4) miembros fijos<br><br>**- Idazkari Orokorra** / Secretaria Gral<br>**- Kontu-hartzailea** / Interventora<br>**- GGBB arduraduna** / Responsable de RRHH<br>**- Informazioaren gizarteko arduraduna** / Responsable de sociedad de la información |

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

| | | |
|---|---|---|
| | presidenta de la comisión de organización | |
| (3) **Lurraldea** / Territorio | **(1) kide finkoa /** (1) miembro fijo<br><br>**- Lurralde eremuko arduradun politikoa eta lurralde batzordeko lehendakaria** / Responsable político del ámbito de territorio y presidente de la comisión de territorio | **- (1) kide finkoa** / (1) miembro fijo: **Lurraldeko aholkulari juridikoa** / Asesor juridico del ámbito de territorio<br>**- (1) kide errotatiboki** / (1) miembro de manera rotativa |
| (4) **Herritarrak** / Ciudadanía | **(1) kide finkoa /** (1) miembro fijo<br><br>**- Herritarrak eremuko arduradun politikoa eta herritarrak batzordeko lehendakaria** / Responsable política del ámbito de ciudadanía y presidenta de la comisión de ciudadanía | **- (1) kide finkoa** / (1) miembro fijo: **Herritarretako aholkulari juridikoa** / Asesor juridico del ámbito de ciudadanía<br>**- (2) kide errotatiboki** / (2) miembros de manera rotativa |
| (4) **Transbertsalak** / Transversales **(komunikazioa, berdintasuna, hizkuntza-politika, kultur-aniztasuna, partaidetza)** | **(2) kide finkoak /** (2) miembros fijos<br><br>**- Alkatea** / Alcaldesa | **- (1) kide finkoa** / (1) miembro fijo: **Komunikazio eta partehartzeko teknikaria** / Técnico de comunicación y participación ciudadana<br>**- (1) kide errotatiboki** / (1) miembro de manera |

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

| | | |
|---|---|---|
| (comunicación, igualdad, política lingüística, diversidad cultural, participación) | **- Informazio gizarteko (komunikazioa barne) zinegotzi ordezkaria** / Concejal delegado de sociedad de la información (comunicación incluida) | rotativa |

Errotatiboak diren kideak urtebeterako izendatuko dira, aurreko urtearen amaieran, hurrengo urteko kudeaketa-plana zehaztu ahala eta bertan jasotako (transbertsalak diren, departamentuz gaindiko koordinazioa behar duten) proiektu estrategikoen arabera.

Las y los miembros que actuen de manera rotativa se nombrarán para un año, al final del año anterior en cuanto se defina el plan de gestión del próximo año. Dicho nombramiento se realizará en función de los proyectos estretégicos (que sean transversales y requieran de una coordinación de ámbito superior al departamental) recogidos en el plan de gestión

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren funtzio orokorrak orain arte bezala mantenduko dira: Udaleko administrazio-kudeaketa planifikatzea, koordinatzea, aholkatzea, kontsultatzea, proposatzea, informatzea eta ebaluatzea, baina ez du erabakiak hartzeko eskumenik izango, ezta beste udal organoek eskuordetuta ere.

- Las funciones generales del **Ámbito de Coordinación General** se mantendrán de manera similar: funciones de planificación, coordinación, asesoramiento, consulta, propuesta, información, y evaluación de la gestión administrativa del ayuntamiento, sin que en ningún caso tenga competencias decisorias propias ni por delegación de otros órganos municipales.

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren funtzio espezifikoak orain arte bezala mantenduko dira berrikuntzaren bat gehituz:

- Las funciones específicas del **Ámbito de Coordinación General** se mantendrán de manera similar con la inclusión de alguna novedad:

* Udal sail/departamentuetako gaien ohiko kudeaketan zailtasunak edo/eta atzerapen edo bestelako gorabeherak sortuz edo aurreikusiz gero horiek bideratzeko moduak aztertzea

* Analizar la manera de encaminar o encauzar las dificultades de gestión y/o retrasos u otras incidencias que surjan o se prevea que puedan surgir en la gestión de los temas ordinarios de las áreas/departamentos municipales

* Sail/departamentu batzuei komunak zaizkien gaiak koordinatzea

* Coordinación de las materias comunes a varias áreas/departamentos.

* Alkatetzari aholkuak ematea berezko dituen eskumenak erabiltzean, zinegotzi ordezkariei eta Tokiko Gobernu Batzordeari dagokion aholkularitzaren kalterik gabe

* Asesoramiento a la Alcaldía en el ejercicio de sus competencias propias, sin perjuicio del asesoramiento que corresponde a las y los Concejales Delegados y a la Junta de Gobierno

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

Local.

* Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetza informatzea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea

* Información y propuesta a la Alcaldía respecto de la definición de la naturaleza y grado de los objetivos a conseguir, así como colaboración en el control del grado de consecución de los objetivos.

* Urteko kudeaketa planeko eta beste plangintza-dokumentuetako proiektu jakinen segimendua egin edo berri eman garapen mailari dagokionean

* Hacer seguimiento o informar del grado de desarrollo de proyectos concretos definidos en el plan de gestión anual y en otros documentos de planificación

* Zeharkako prozesuetan aldaketa bultzatzea eta bideratzea

* Impulso y canalización del cambio en procesos transversales.

* Eremuetatik Kudeaketa Gune Orokorrera eta alderantziz etengabeko informazioaren joan-etorria bultzatzea koordinazio eraginkorra lortzeko guztion artean. Horregatik talde hau osatzen dutenen betebeharra da hori guztia modu eraginkorrenean bermatzea eta modu proaktiboan jardutea talde honetan zein eremuetako taldeetan.

* Fomentar el trasvase de información de los ámbitos al Ámbito de Coordinación General y viceversa para lograr una coordinación eficiente entre todas y todos. Por ello las y los mimebros que conforman este grupo tienen el deber de garantizar todo ello de manera eficiente y actuar proactivamente tanto en este grupo como en los grupos de cada ámbito.

* Alkatetzak egoki iritzitako bestelako gai orokorretan laguntzea

* Colaboración en otras cuestiones generales que la Alcaldía considere oportunas.

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren ardurapeko lan-tresnak eta bileren maiztasuna:

- Instrumentos de trabajo y frecuencia de las reuniones del **Ámbito de Coordinación General:**

Lan-tresnak:
Koordinazio Gune Orokorrak ondorengo lan-tresnak ditu koordinazio gune orokor moduan ahal den modu egokienean jarduteko. Aldi berean tresna hauek hiru eremuetan ere elikatu behar dira:

Instrumentos de trabajo:
El Ámbito de Coordinación General dispone de los siguientes instrumentos de trabajo para actuar como ámbito de coordinación general de la manera más óptima. Al mismo tiempo estos instrumentos han de completarse en los tres ámbitos:

* Urteko memoria (hiru arloetan hilabetero osatutako kudeaketa txostenetatik eratorritako urteko kudeaketa memoria)

* Memoria anual (memoria de gestión anual derivada de los informes de gestión mensual completados en los tres ámbitos)

* Agintaldirako plana eta urteko kudeaketa plana

→ Urterako kudeaketa-plana aurreikusi

→ Garapen-mailari segimendua egin (hiru

* Plan de mandato y plan de gestión anual

→ Prever el plan de gestión anual

→ Realizar el seguimiento del grado de

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

hilean behin)

* Sail/departamentu arteko plangintza (sail/departamentu guztiei edo hainbati modu koordinatuan eragiten dieten proiektuak)

→ Plangintza aurreikusi lan kargak aintzat hartuta (hiru hilean behin)

→ Garapen-mailari segimendua egin (hiru hilean behin)

* Urteko kudeaketa planeko proiektu jakinen segimendua egin / berri eman (landuko den egutegiaren arabera): hausnatu behar da Kudeaketa Gune Orokorrean partekatzea komeni litzatekeen proiektuen inguruan. Izan prozesu esparrutik jakiteko ze suposatuko duten departamentuetan, edo izan emaitzaren esparrutik. Egitasmo esanguratsuen inguruko gogoeta beraz (departamentu guztiongan eragina duten edo beste alderdiren batengatik azpimarragarriak izan daitezkeenak). Eremu bakoitzean hausnarketa hori egin ondoren zerrenda bat osatuko da eta egutegi bat finkatu Kudeaketa Gune Orokorreko taldeak proiektu horien inguruko informazioa jaso dezan.

Bileren maiztasuna: bilerak bi astetik behin burutuko dira aurreko urte amaieran/ urte hasieran landuko den egutegiaren baitan.

- **Eremukako bilerak**: osaera, funtzioak eta maiztasuna

Osaera: mistoa, eremu bakoitzean barneratutako departamentuetako arduradun politiko eta teknikoak (izan arduradunak edo ez, eremuak berak erabakiz)

Funtzioak:

* Udaleko administrazio-kudeaketa planifikatzea, koordinatzea, aholkatzea, proposatzea, informatzea

ejecución (cada trimestre)

* Planificación interdepartamental (proyectos que afectan a todas las áreas/departametos o a varios de manera coordinada)

→ Prever la planificación prestando especial atención a la carga de trabajo (cada trimestre)

→ Realizar el seguimiento del grado de ejecución (cada trimestre)

* Realizar el seguimiento / informar sobre determinados proyectos del plan de gestión anual (de acuerdo con el calendario que se establezca): se ha de reflexioanr sobre los proyectos que convendría compartir en el Ámbito de Coordinación General, sea desde un punto de vista de proceso para conocer su impacto en los departamentos, sea desde un punto de vista de resultados. Por lo tanto se trata de una reflexión acerca de las actuaciones más destacables (aquellas que puedan ser destacables por su influencia en todos los departamentos o por cualquier otro aspecto reseñable). Tras analizarse en cada ámbito se confeccionará un listado y se calendarizará para que en el Ámbito de Coordinación General se informe sobre dichos proyectos.

Frecuencia de las reuniones: reuniones cada dos semanas de acuerdo con el calendario fijado a finales del año anterior/ primeros de año.

- **Reuniones de ámbito**: composición, funciones y frecuencia

Composición: mixta, personal técnico y responsables políticos de los departamentos incluidos en cada ámbito (tengan el rol de responsables o no, según criterio del propio ámbito)

Funciones:

* Planificación, coordinación, asesoramiento, propuesta, información, y evaluación de la gestión

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

eta ebaluatzea.

administrativa del ayuntamiento.

* Sail/departamentu ezberdinen arteko politiketan sinergiak bilatzea eta ikuspegia bateratzea.

* Encontrar las sinergias y homogeneizar la perspectiva de las políticas de las diferentes áreas/departamentos.

* Sail/departamentu arteko koordinazio-lanak eta elkarlana bideratzea.

* Encauzar la coordinación y colaboración entre las áreas/departamentos.

Ez du erabakiak hartzeko eskumenik izango,ezta beste udal organoek eskuordetuta ere.

En en ningún caso tenga competencias decisorias propias ni por delegación de otros órganos municipales.

Bileren maiztasuna: eremu bakoitzeko bilerak bi astetik behin burututuko dira aurreko urte amaieran/ urte hasieran landuko den egutegiaren baitan.

Frecuencia de las reuniones: las reuniones de cada ámbito se efectuarán cada dos semanas de acuerdo con el calendario fijado a finales del año anterior/ primeros de año.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

- apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera alkatearen eskumena udal-gobernua eta udal-administrazioa zuzentzeko

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 25.7 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.c) atalean xedatutakoaren arabera alkateaen ahalmena antolaketa izaerako dekretu eta jarraibideak emateko

- azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, laugarren xedapen gehigarrian dioenaren arabera Udalaren zerbitzu administratiboak egituratu eta antolatzeko

**LEGISLACIÓN APLICABLE**

- artículo 21.1.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local por el que corresponde a la Alcaldesa la atribución de dirigir el gobierno y la administración municipal

- artículos 25.7 y la disposición adicional primera 1.c) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en cuanto a la potestad de dictar decretos o instrucciones de naturaleza organizativa por parte de la Alcaldesa

- disposición adicional cuarta del RD 2568/1986, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales en cuanto a la estructura y organización de los servicios administrativos del Ayuntamiento

Horregatik guztiagatik, Alkatetza honek, idazkari nagusiak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin, esleituta dituen eskumenak baliatuz.

Por todo ello, esta Alcaldía, con la conformidad dada por la Secretaria General a la propuesta de decreto que consta en el expediente, en uso de las atribuciones que tiene conferidas.

Honen bidez,

Por la presente,

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

**EBATZI DUT**

**Lehena.** Dekretu honen azalpen zatian zehaztutako ondorioak onartzea. Horrela labur daitezke:

- Udal antolaketa egituran orain arte eratutako egiturekin jarraitzea, baina izen aldaketa bat burutuz: **Koordinazio Gune Orokorra** (**KGO**, *Zuzendaritza taldea* ordez) eta hiru arloak (**Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak**).

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren osaera aldatzea irizpide batzuetara egokituz eta ondorioz osaera berria onartzea kideen artean profil desberdinak gehituz eta kasu batzuetan errotazio sistema bultzatuz.
Hiru eremuetako ordezkari politiko zein teknikoek osatuko dute eta transbertsalak ulertzen diren departamentuetako ordezkari politiko eta teknikoek ere, guztira 16 kidez osatuko da, 5 ordezkari politiko eta 11 ordezkari tekniko, guztia azalpen zatian jasotako taulan zehaztutakoaren baitan eta 2022rako dekretu honen bigarren atalean egindako izendapen zehatzen arabera.

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren funtzio orokorrak eta espezifikoak onartzea dekretuaren azalpen zatian adierazitako moduan.

- **Koordinazio Gune Orokorra**ren ardurapeko lan-tresnak eta bileren maiztasuna onartzea dekretuaren azalpen zatian adierazitako moduan.

- **Eremukako bileren** osaera, funtzioak eta maiztasuna onartzea dekretuaren azalpen zatian adierazitako moduan.

**Bigarrena. 2022rako Koordinazio Gune Orokorra**ren osaera politiko-teknikoa izendatzea aurreko puntuan onartutako osaera kontuan hartuta. Osaera hau dekretu honen azalpen zatian zehaztutako irizpideetatik eratorri da. Eragindako eremuek proposatutako kide errotatiboak txertatu dira.

**RESUELVO**

**Primero.** Aprobar las conclusiones expuestas en la parte expositiva del presente decreto que se resumen en las siguientes:

- Continuar con la estructura organizativa municipal creada hasta la fecha, pero con modificación de su denominación: **Ámbito de Coordinación General** (en vez de *grupo de dirección*) y tres ámbitos (**Organización, Territorio y Ciudadanía**).

- Modificar y consecuentemente aprobar la nueva composición del **Ámbito de Coordinación General** ajustándolo a una serie de creiterios que conllevan la inclusión de diferentes perfiles entre sus miembros e impulsar un sistema de rotación en algunos casos.
Estará conformado por representación política y técnica de los tres ámbitos y también de los departamentos transversales, 16 miembros en total, 5 representantes políticos y 11 técnicos/as, todo ello de acuerdo con la tabla recogida en la parte expositiva y de acuerdo con la composición concreta prevista en el apartado segundo de este decreto en el que se realizarán los nombramientos para 2022.

- Aprobar las funciones generales y las específicas del **Ámbito de Coordinación General** enumeradas en la parte expositiva del decreto.

- Aprobar los instrumentos de trabajo y frecuencia de las reuniones del **Ámbito de Coordinación General** referidos en la parte expositiva del decreto.

- Aprobar la composición, funciones y frecuencia de las reuniones de los **ámbitos** referidos en la parte expositiva del decreto.

**Segundo.** Nombrar la composición politico-técnica del **Ámbito de Coordinación General** para el **año 2022** de acuerdo con la composición aprobada en el punto anterior y derivada de los criterios fijados en la parte expositiva del presente decreto. Se incluyen las y los miembros de carácter rotatorio propuestos por los ámbitos afectados.

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

Aldaketak suertatuko balira, bai alderdi teknikoan postu zehatzak hornitzen dituzten pertsonen aldeketak direla eta, bai alderdi politikoak eskuordetzeetan aldaketak gauzatu direlako, alkatetza honek lanpostua eta kargu politikoa lehenetsiko ditu eta ondorioz aurrekoan ordezkatuko dituen pertsona guneko kide izango da dekretu hau kasuan kasu aldatu beharrik gabe.

En el caso de que existan modificaciones tanto en la parte técnica relacionadas con las personas concretas que ocupan los diferentes puestos de trabajo como en la parte política relacionadas con modificaciones en las delegaciones efectuadas por esta Alcaldía se priorizará el puesto de trabajo y cargo político y por lo tanto pasará a formar parte del grupo la persona que sustituya a las y los anteriores sin necesidad de modificar en cada caso este decreto.

| **Eremuetako ordezkaritza kopurua**<br>Número de representantes de ámbitos | **Osaera politikoa**<br>Composición política | **Osaera teknikoa**<br>Composición técnica |
|---|---|---|
| (5) **Antolaketa** / Organización | **(1) kide finkoa /** (1) miembro fijo<br><br>**- Antolaketa eremuko arduradun politikoa eta antolaketa batzordeko lehendakaria** / Responsable política del ámbito de organización y presidenta de la comisión de organización – Alazne Korta Zulaika | **(4) kide finkoak /** (4) miembros fijos<br><br>**- Idazkari Orokorra** / Secretaria Gral – Nagore Sarasola Otermin<br>**- Kontu-hartzailea** / Interventora – Irune Soto Cotorro<br>**- GGBB arduraduna** / Responsable de RRHH – M.ª Jose Sánchez Plaza<br>**- Informazioaren gizarteko arduraduna** / Responsable de sociedad de la información – Begoña Bueno Barranco |
| (3) **Lurraldea** / Territorio | **(1) kide finkoa /** (1) miembro fijo<br><br>**- Lurralde eremuko arduradun politikoa eta lurralde batzordeko** | **- (1) kide finkoa** / (1) miembro fijo: **Lurraldeko aholkulari juridikoa** / Asesor juridico del ámbito de territorio – Vicente Castiella Castiella<br>**- (1) kide errotatiboki** / (1) miembro de manera rotativa: A**rkitektoa** / Arquitecto – Xabier Agirre Ugarte |

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

| | | |
|---|---|---|
| | **lehendakaria** / Responsable político del ámbito de territorio y presidente de la comisión de territorio – Eneko del Amo Jiménez | |
| (4) **Herritarrak** / Ciudadanía | **(1) kide finkoa /** (1) miembro fijo<br><br>**- Herritarrak eremuko arduradun politikoa eta herritarrak batzordeko lehendakaria** / Responsable política del ámbito de ciudadanía y presidenta de la comisión de ciudadanía – Maite Gartzia Ontiveros | **- (1) kide finkoa** / (1) miembro fijo: **Herritarretako aholkulari juridikoa** / Asesor juridico del ámbito de ciudadanía – Iker Rocandio Etxeberria<br>**- (2) kide errotatiboki** / (2) miembros de manera rotativa: **Kulturako teknikaria** / técnico de cultura – Iker Tolosa Lafuente **+ Gizarte zerbitzuetako arduraduna** / Responsable de SSSS – Leire Sein Arbelaitz |
| (4) **Transbertsalak** / Transversales **(komunikazioa, berdintasuna, hizkuntza-politika, kultur-aniztasuna, partaidetza)** (comunicación, igualdad, política lingüística, diversidad cultural, participación) | **(2) kide finkoak /** (2) miembros fijos<br><br>**- Alkatea** / Alcaldesa – Aizpea Otaegi Mitxelena<br>**- Informazio gizarteko (komunikazioa barne) zinegotzi ordezkaria** / Concejal delegado de sociedad de la información (comunicación incluida) – Eñaut Gracia Ibarra | **- (1) kide finkoa** / (1) miembro fijo: **Komunikazio eta partehartzeko teknikaria** / Técnico de comunicación y participación ciudadana – Mikel Goñi Larrea<br>**- (1) kide errotatiboki** / (1) miembro de manera rotativa: Berdintasun teknikaria / Técnica de igualdad – Leticia Bermejo Borobia |

ESKU846ac94a-3fa7-4e32-94f6-c4063df10f40

**Hirugarrena.** Erabaki honen berri ematea, bidezko ondorioetarako, interesatu eta eremu, sail eta departamentuei.

**Laugarrena.** 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoan xedatutakoa betetzea ebazpen honetan adierazitakoei buruz publikotasun aktiboari dagokionean.

**Bosgarrena.** Erabaki honen berri ematea Udalbatzak egingo duen lehenengo osoko bilkuran.

**Erabaki hau behin-betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.**

**NON: dagokion Administrazioarekiko auzien epaitegia.**

**EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.**

**Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.**

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

**Tercero.** Notificar el presente acuerdo a las y los interesados y a los ámbitos, áreas y departamentos municipales para su conocimiento y efectos

**Cuarto.** Dar cumplimiento a lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en lo que se refiere a la publicidad activa de los aspectos regulados por esta resolución.

**Quinto.** Dar cuenta al Pleno de esta resolución en la primera sesión que tenga lugar.

**Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.**

**LUGAR: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente.**

**PLAZO: en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.**

**No obstante, con caracter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.**

Errenteria, en la fecha de la firma

Nagore Sarasola Otermin

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022IPOL0002-JAKINARAZPENA/NOTIFICACIÓN (ERRENTERIAKO UDALA) |
|---|---|

Data / Fecha: 2022/02/08 08:32:40
Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Nagusia